



## Santa Agedan, koplari

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶ Jende ugari irten zen kalera bi eskualdeetan, makila eskuan, baserriz baserri eta etxez etxe

**ESKEA** ▶ Lortutakoarekin diru-laguntzak bideratuko dituzte, eta ikasbidaiaik eta bazkariak egingo dituzte taldeek ▶ 6



**Ibarra.** Herriko plazatik abiatuta, kantuan aritu ziren elizako koruko partaideak. NEREA LIZARTZA



**Zizurkil.** Gazteboen koadrila kantari aritu zen herrian. NEREA URBIZU



**Olarrain.** Makila eskuan, kantuz alaitu zuten auzoa. NEREA LIZARTZA

**EUSKARA** ▶

### Sinadura bilketa kanpaina abiaraziko du EHBEk eskualdean

Ikastetxeetako euskararen egoera hobetzea izango du helburu ▶ 4



Tolosako Kultur Etxean herenegun egin zuten batzarra. NEREA URBIZU



- Mertzeria
- Lentzeria
- Diseinugintza eta patroigintza
- Jantzigintza

**Bihar, Astelehena 6  
ateak berriro zabalik.**

Ernio-bidea, 12 • 20150 ZIZURKIL  
Tel.: 943 69 18 64

## ESANA ▶



**JONAN FERNANDEZ**  
ELKARRI-KO KOORDINATZAILEA

«Akordio pluralaren eta herri kontsultaren aldeko herritarren sarea osatzea izango du helburu ekimenak»

'Berria' (2006-01-31)

## iragarki laburrak ▶

**ALOKAIRUA**

**Tolosa.** Pisua alokatzen da Tolosan altzariekin. Interesatuak deitu 943 67 10 20 telefono zenbakira.

**Jaka (Espainia).** 3 logelako etxebizitza alokatzen da eguneko. Deitu 635 75 02 93 zenbakira.

**LANA**

**Iturgina.** Iturgin lanetarako laguntzailea behar da. 656 41 68 08.

**Etxeko lanak.** Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Goizez eta arratsaldez. Deitu 943 11 98 74 telefono zenbakira.

**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan lau orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

**Geriatría-erizaina.** Eskarmentua duen geriatría-erizain laguntzaile gaztea eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Astelehenerik larunbatera, orduka edo egun erdirako. Tolosa-Villabonan. Interesatuak 676 78 96 68 zenbakira deitu (20:00etatik 22:00etara).

**SALGAI**

**Txakurra.** Hispanier eta Setter txakurra salgai. Interesatuak deitu 943 69 14 32 telefono zenbakira.

## UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

## Inauterietako akelarrea



**E**streinatuta ditugu aurtengo mozo-  
rro-jantziak. Batzuk bai, behintzat.  
Gipuzkoan Inauteriak hasteko beste hiru aste falta diren bitartean, Nafarroan disfrutatu baititugu dagoeneko. Eguberriak bukatzearekin batera hasten dira Uitzin eta Eratzunen. Leitzako karrozak eta baserri baserri eskean ibiltzeko egunak ere joan ziren. Sunbillako igande handia ere pasatu da, aurten Troyako zaldi eta guzti!

Eta egutegiak agindu bezala, joan den

astelehenean Joaldunek Zubieta eta Iturrengo kaleak hartu zituzten. Badakizue urtarrileko azkeneko igandearen ondorengo astelehen eta asteartetan izaten direla Inauteriak. Ba aste honetan bertan gertatu da hori.

Hagitz ikusgarria izaten da festa, eta jende andana biltzen da 50 joaldunak, pausurik galdu gabe, joareak astintzen ikustera. Baina zintzarrien hotsaz gain izaten da bestelako mozoerretarako gogorik ere. Zubietarrek Iturrendarrei astelehenean egindako bisitan, akelarrea egin zuten, esaterako. Kanpotar eta herriarreen artean ez genuen sorginik ikusi, baina sorginkeria franko bai.

Eta sorginekin jarraituz, albiste berria jakin dugu Iturenen egon ginen egunetik. Zugarramurdin aurten ez omen dute

akelarrerik eginen. 22 urteko tradizioak etena izanen du aurten behintzat. Herriarrek batzar batean hartutako erabakia da. Ez zen egokia nonbait, gaupasak azkenaldian hartu zuen bidea: demasa, desfasea izan baita. Gauzak horrela, tradizioek eta ohiturek markatutako egunotan, esanahi bereziko jaiak agur esanen du.

Ez da moztuko den egun bakarra. Baztandarrek ere urgentziatzko deia luzatu baitute: aurten lanerako behar adina jende biltzen ez bada ez da Baztandarrren Biltzarrik ospatuko.

Eta hontaz gero, gaurko moraleja ere asmatuko zenuten, ezta? Euskal tradizioak galdu aurretik, lanean hasi beharko genukeela, barrabaskeriak alde batera utzita!

## LEHEN ETA ORAIN ▶

San Blaseko  
opilak erostra

**Erredakzioa** ▶ Urtetik urtera mantendu den ohitura da San Blaseko opilena. Izen bereko Tolosako auzoan jartzen dituzte salgai jaietan (beheko irudian). Antzina ere halaxe eginen zuten. Goiko argazkia, esaterako, XIX. mendekoa da. Boinas Elosegi enpresako langile koadrila da, *boineroak* izenarekin ere ezagunak zirenak, San Blasera egindako *paseoan*. Tartean dira, besteak beste, Valeriano Garate (opilak eskuan dituen) eta Lutxi eta Agustina Adurriaga. HITZA / N. LATABURU

HEMEROTEKA ▶

Leitza:  
eztiro errebelde

Geure burua abertzaleztat jotzen dugunok egunero begiratu beharko genukeen ispilua da Leitzaiko Udala, Nafarroan. Izan ere, milurteko Euskal Herriaren kulturaren eta sinboloen biziraupenaren aldeko eguneroko borroka islatzen da ispilu horretan. Leitzaizatek giza eskubideen eta eskubide politikoaren alde egiten duten defentsak Udal honen azkenaldiko historia idatzi du, herrikiadeak gorensten, hala. Gehientsuenek pentsatzen dute bai Leitza bai Nafarroa Euskal Herria direla, bere Iruñeko bulegotik Nafarroako presidente Miguel Sanzek irizten duenaz haratago.

Ikurrina ere aspaldiko borroken motibo izan da. Espainiako legediak, 1981. urteko Ikurren Legea (39/1981) onartu zenetik, Espainiako banderaren erabilpena arautzen du ikastetxeetan, eraikin publikoetan, embaxadetan, indar armatuetan... Baina arautegiaren artikulua batek dio Autonomia Erkidegoek balkoietan beren banderak jarri ahal izango dituztela, bertako legediak hala badiu; kasu honetan, Nafarroako Foru Erkidegoak. Jakina ez dagoela lege hutsunerik arlo honetan Nafarroan, 2003ko martxoan Ikurren Legeari atxikitzea onartu baitzuten, UPN, CDN eta PSN alderdien aldeko botoekin. Zera agintzen du horrek: Nafarroan, eraikin publikoetan eta balkoietan Espainiako bandera, Europako Bata-sunekoa eta Nafarroakoa jarriko direla. Ez du jasotzen, hortaz, ikurrina; ez dio ere inongo aipamenik egiten Arrano Beltzaren ikurrari.

Sistema demokratikoan sistemen dugunok, Sanz presi-



Ikurrina Leitzaiko udaletxeko balkoian, artxiboko irudian. J. ASTIBIA

denteak ere egunero publikoki egiten duen bezala, hitzartzen dugu guztiok garelako herri-borrontearen esklabo eta hori hauteskunderen edo herri-galdekete bidez islatzen dela. Zentzu honetan, Leitza ondo-ongoan izan ziren 2004. urteko hauteskunderen emaitzak: PPK, 189 boto; PSNk, 68. Boto espainolista, beraz, 257. EAK, 138 boto; Aralarrek, 112; EAJK, 58. Boto abertzaleak, hortaz, 408.

Ez dago zalantzarik Leitzaiko herritarrek, gehiengo eta demokratikoki, ez dutela soilik alderdi abertzaleen alde bozkatzeko. Horrez gain, beren udaletxearen balkoian ikurrina nahi dute. Udaletxea 1915ean eraberritu zuten azkeneko, eta harro egoteko modukoa da haientzat.

Asko izan dira Sanz presidentearen mehatxu ekonomiko eta judizialak. Baina, behin eta berriro, ikurrina bere le-

kuan jarri dute. Eguntan berri-berri ere kendu dute, eta dagoneko hamabigarren aldia da; baina ez dugu inongo zalantzarik izan behar bere lekura itzuli delako, beharbada Nafarroako abertzaleen jarrai daitkeen bidea erakusteko, hurrengo foru-hauteskunderen begira. Hau posible izan daiteke soilik leitzarrek bezalako herritarren militantzia mistikarekin. Euskal Herriaren garra bizirik mantentzen baitute leitzarrek, giza eskubideak defendatzen eta bere udaletxearen balkoian ikurrina mantentzen datzan beren errebeldia eztiaren atzean.

CESAR ARRONDO ▶  
LA PLATAKO UNIBERTSITATE  
NAZIONALEKO IRAKASLEA  
(ARGENTINA)

www.izaronews.com

(erredakzioan itzulia)

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Ikastetxeetako  
gaur egungo  
giroaz

Zalantzarik gabe, gurasoek dute erru guztia. Heziketak seme-alabekin egotean datza, irakastea, hitz egitea, gauzak azaltzea... hori ez da irakastea lana! Etxean ikusten duena ikasten du haurrak, eta ez bagara berarekin egoten eta berataz arduratzen, eta nahi duguna egiten uzten badiogu, ohitura txarrak hartzen joango da eta... Lehen beste errespetu bat genuen, bai gurasoekiko, aiton-amonekiko bai eta irakasleekiko ere. Gaur egun hori galdu egin da. Gogorra- goak izan behar dute gurasoek.

gaizto hauek ibiltzen direla... Esan beharra daukat segurtasun pribatuko konpainia bantentzat lan egiten dudala, eta behin baino gehiagotan ume moko hauek topatu ditudala. Lankideek eta nik dagoeneko identifikatuta ditugu, baina ezin dugu beraien aurka ezer egin ez baldin baditugu Renfe edo ADIFen —geltokiaren jabea den enpresa— instalazioetan arauen aurkako zerbait egiten in *fraganti* harrapatzen. Bestalde, geltokiaren ondoan, baina honen mugaz kanpo gaiztakerietan harrapatuz gero, ezin diegu ere ezer esan, ez baitugu baimenik uniformatuta gaudela geltokitik ateratzeko —eta udaltzainak edo ertzainak ere ezin dira geltokian sartu epailearen baimenik gabe edo inork delitu bat ez baldin badu sa latu—.

SEGURTASUN ZAINDARIA ▶

Ikasleek urteak duen denboraren %16 ematen dute eskolan. Beste guztia eskolatik kanpo. Norberak atera ditzala nahi dituen ondorioak...

Gurasoak dira haurren heziketaren arduradunak, dudarik gabe, eta gaur egungo kapitalismoak, konsumismoak, estresak... beren haurrei heziketa duin bat emateko oztopoak besterik ez dizkiete jar-tzen

Ziur al zaude ez direla betiko- ka izaten? Gehiago esango nuke: *mobida* guztiak koadrilla bateko *hiru* tiporen artean hasten dituzte; eta, gainera, ez bakarrik lanbatetan, astean zehar ere bai... Zure semeari joko baliote, desberdin ikusi-ko zenuke!

KILL ▶

Nik ez dut esaten ondo egiten dutenik, ezta gutxiago ere. Baina, nire ustez, gauzak asko ari dira esageratzen, besterik ez. Eta noski ez zitzaidala batre gustatuko nire semea horrela etortzea etxera... Besterik gabe diot zerbait esaten duen jendeak seguru daki-lako esateko zer gertatu den, baina bestela ez. Denon kaltetarako delako, eta ez pentsatu gauzak handitzeagatik arazoak konponduko direnik.

BLA ▶

Tolosan izaten  
diren liskarrei  
buruz

Askotan lege moteltasuna gaizkileen alde... Baten batek esan du Renfe-ko tren geltoki edo apeadero inguruan giza-

hitza

lagunen  
**txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN  
TXARTELAREKIN %5\*-eko  
BEHERAPENA izango duzu  
zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honetekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

**SHANTI  
KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

EUSKARA ▶

# EHBEk sinadura bilketa kanpaina abiaraziko du gurean

«Ikastetxeetako euskararen egoera hobetzeko eta euskarari babesa eta bultzada emateko» modua izango da ekintza



Tolosako Kultur Ebean bildu ziren eskualdeko euskararen hainbat talde sustatzaileen ordezkariak. N. URBIZU

**NEREA URBIZU**

Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak euskararen egoera ikastetxeetan sakonki aztertu ondoren, «hizkuntza politikek ez dute euskara kalteu beste-rik egin, ikasleen gehiengoari euskara ezagutzeko eskubidea ukatuz, eta hainbat eremutan euskaraz ikasteko aukera bera ere ukatuz», ondorioztatu dute.

Egoera «larria» dela azaldu dute, eta hezkuntza eta euskalgintzako eragileak bilduko dituen ekimen zabala antolatzea erabaki dute; bide batez, eskolak euskalduntzearen aldeko eskaera soziala «pizteko eta indartzeko» proposamena luzatuko dute. «Hizkuntza politika berri baten beharra» zabalduko litzateke honela, besteak beste. Horretarako, herenegun eginiko batzarrean azaldu bezala, Tolosaldeko hezkuntza eta euskalgintzako eragileekin jarriko dira harremanetan kanpainaren babesa lortzeko. Honen aldekoek otsaila eta maiatza bitarte sinatu ahaliko dute.

**AZOKA ▶**

## Zerkausitik kanpo eginiko lehendabiziko azoka arrunta

Jende asko bildu zen atzo Trianguloan; ardi gazta izan zen gehien saldu zen produktua

**PABLO ALBERDI**

Triangulon egindako lehen azoka arrunta izan zen atzoko. Zerkausian zegoen aterpea ez du leku berri honek, eta hori da jendeak faltan botako duena. Jendetsua izan zen atzo. Neguko barazkiek aurreko asteko prezioak eta kalitatea mantentzen jarraitzen dute. Askok saldu dena ardi gazta izan da.

Zuhaitzen artean udaberri usaina nabarmentzen hasia da dagoeneko, fruitarbolen artean kiwia baitzegoen.

**AZOKA ▶**

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Ziklamena	3,50	6,00
Azalea	3,50	10,00
<b>Bertako produktuak</b>		
Errezil sagarra	2,00	5,00
Babarrun zuria	6,00	12,00
Tomatea	3,00	4,00
Artisau ogia	2,20	2,85
Ardi gazta	12,00	16,00

**SANTA LUZI HEZKUNTZA GUNEA**  
KALITATEZKO D EREDUA IRAKASKUNTZA

**SAMANIEGO**  
IRAKASLEA

- ✓ HAUR HEZKUNTZA
- ✓ LEHEN HEZKUNTZA
- ✓ DBH
- ✓ BATXILERGOAK
- ✓ ZIG gela eta LAN HASTAPEN EGOKITUA

☎ 943 65 10 63 ☎ 943 65 13 87

**NEKAZAL KOOPERATIBA**

Sektoreko ezagutzak dituen pertsona bat behar da komertzial arloan lan egiteko.

Ongarri, Fitosanitario, animalien elikadura eta ukuiuletako instalazioetan esperientzia izatea baloratuko da.

Interesatuok bidali Curriculum Vitae, honako helbidera:  
**109 Posta Kutxa, 20400 Tolosa**

**ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA**  
IKAS KOMUNITATEA

**PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**

Pagamüño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL  
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

**VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**

**JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA**

**Fleming Ikastetxea.**  
Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)  
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)  
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691413  
012277aa@hezkuntza.net

**Erniobe B.H.I. Villabona**  
**Erniobe Ikastetxea.**  
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza  
Arratzainen (12-16 urte)  
Tel.-faxes: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net

**Uzturpe Ikastola**  
0-18 urte

**Ikastetxe bat baino gehiago**  
Uzturpe udal haur eskola udal ludoteka ikastola

ibarran kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen  
matriculazio epea otsailaren 6tik 20ra  
09:00etatik 12:30etara / 14:30etatik 18:00etara

**urrerantz doan ikastola**  
dei iragaztu eta beste arretariak dugu


Uzturpe Ikastola  
BILKETA 2006ko otsailaren 5a

**hirukide**  
Tel.: 943 69 35 12  
Tel.: 943 69 35 12  
Tel.: 943 69 35 12  
Tel.: 943 69 35 12  
www.hirukide.org

**KALITATEZKO HEZKUNTZA**




ATLANTA 1996



SYDNEY 2000



ATENAS 2004



TOLOSA 2006


**Audiren kontzesionario berri bat sortu da Tolosan**



AUTOWAG - TOLOSA aitzindari izateko asmoz sortu da, aro berriaren eskakizunei erantzuteko gai diren ideia eta kontzeptu berriekin.

AUTOWAG - TOLOSAREN instalazio berriak estrategikoki kokatuak daude, N-1 errepidearen ertzean, gure bezeroentzako sarbide- eta aparkatze-erosotasun guztiekin.

**Dimensio berri bat**



USABAL industrialdea - Tel. 943 67 35 81 - 20400 Tolosa



SANTA AGEDA BEZPERA ▶

# Jende andana eskean, bi eskualdeetan

Santa Ageda Bezpera izaki, kalean jendea eta kantauk izan ziren nagusi

NEREA LIZARTZA

Euskal Herriko tradizioari kasu eginez, Santa Ageda Bezpera ospatu zuten atzo Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan. Baserritar jantziak soinean zituztela ibili ziren gehienak kantuan hotzari aurre eginez. Koplarien laguntzarekin eta musika doinuekin, giro ederra izan zen nagusi egun osoan zehar bi eskualdeetan. Hala, batzuk etxez etxe edo baserriz baserri ibili ziren kantuan, eta beste batzuk, berriz, kalez kale ibiltzea nahiago izan zuten; edonola ere, guztiak alaitasunez eskatu zuten Santa.

Ibarran, esaterako, goizean hasi eta gaua bitartean ibili ziren kantuan; etenik izan zuten, baina, Hauspoa elkartekoek, Sendi-Ekintza elkarteak bazkaria egin eta indarberritzeko. Talde hau herriko baserrietan ibili zen kantari, baina, ez diru eske; «tradizioari eustea dugu xede eta ez onura ekonomikoak izatea» azaldu zion HITZARI taldeko kide batek.

Tolosan, Olarraingo taldea izan zen irteten lehena, arratsaldeko lehen orduan hasi baitziren hogeita hamar lagun inguru Santa Eskean; lehenik Urkizu aldeko baserrietara joan ziren eta, ondoren, euren auzoa zeharkatu zuten. 18:00ak aldera beste hiru talde irten ziren, hala nola Gure txokoa elkarteak, Orfeoiko talde txiki bat eta Amaroizko taldea. Bakoiak bere lokaletik ekin zion kantatzeko bideari; guztiak ere partehartze oparoa izan zuten. Azkenak, Lizardi, Ero-Etxe eta

Emendek elkarreetakoak irten ziren; hauek ere euren elkartetik ekin zioten Santa Eskeko bideari.

Leitzan ere egun osoan zehar ibili ziren kantuan. Goizean goizetik giro ederra zegoen herrian; zakua eskuetan hartuta, haurrek eta gaztetxoak koadri-la txikitari zatituta ibili ziren eskean herriko txoko guztiak alaituz. Talde batzuk ikasbadaia egiteko ere aprobetxatu zituzten eskean irabazitakoak. Arratsaldean, herriko hainbat lagun elkartu ziren eta guztiak elkarrekin koplak kantatzen aritu ziren herrian zehar trikitalarien laguntzarekin. Ohitura da talde batzuen artean baserritar jantzirik gabe irtetea koplak kantatzera.

Alegian Txintxarri abesbatzakoak herriko kaleetan ibili ziren. Hogeita bost lagun inguru elkartu ziren herri osoa alaitzeko.



Tolosa. Olarrain auzoan helduak nahiz gazteak animatu ziren baserriz baserri kantari irtetera. NEREA LIZARTZA



Ibarran. Sendi-Ekintza elkarteak bazkaria egin zuten Hauspoa elkarte kideek. NEREA LIZARTZA



Leitza. Ikasbidairako dirua lortzen ibili ziren batzuk. NEREA URBIZU



Alegia. Txintxarri abesbatzako kideak Santa Eskean. NEREA LIZARTZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
**50.000**  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

**XABIER OLARRA** ▶ ITZULTZAILEA

# «Testutik harantzago joan naiz»

Raymond Queneauren 'Estilo-ariketak' liburuaren itzulpenak jatorrizko testuari ordezkoak bilatzera behartu du Xabier Olarra, eta bertako pasarte batzuk itzuli dituen zailenak izan direla aitortu du

**ALBERTO BARANDIARAN - BERRIA**

Urrats batek biren balioa du zenbaitetan. *Estilo-ariketak* liburu (Igela) kalean izatea, bederen, notizia handia da bere txikian. Juan Garziak itzultitako William Shakespeareren sonetoak —*Soneto hautatuak* (Alberdania)— itzultzaileen artean notizia handia izan ziren bezala. Lan hauek maisuen obrak euskaraz irakurtzeko aukera ematen dutelako. Irakurlea hizkuntzaren adierazkortasunaren mugetan murgilarazten dutelako. Itzultzaileek itzulpen-gintzaren arazo guztiekin aurrez aurre topo egiten dutelako. Eta garaile ateratzen diren sentipena uzten digutelako. Beste gaztelu bat eraitsita.

Xabier Olarrak (Tolosa, 1953) beste gaztelu bat eraitsi du eguneroko gertaera bat ia ehun modutan kontatzen duen liburu berezi eta bakan hau itzulita. Edo, nahi bada, jauregia berreraiki du gure begien aurrean.

**Raymond Queneauren liburu honen itzulgarritasunaz eztabaida franko izan da. Ez da itzulezina, beraz.**

Itzulezina bai, behintzat. Ambrorse Bierceren *Deabruaren hiztegia* liburuan (Ibaizabal), itzulgaitza jarri nuen pasarte askotan. Baina han dena itzuli nuen, eta hemen ere bai. Bai, badira pasarte itzulezinak, baina horrelako liburu batek aukera ematen du ordezko testu bat sartzeko. Egin zitezkeen *Louchebemb* izeneko pasarteetan, La Villeteko harakinek argot batean egiten zutena. Horko legeak aplikatuz, egin zitezkeen euskaraz. Baina horren ordez erabaki dut erabiltzea gurean dabilen teknolekto xelebre bat, euskararen berezko izaera pospositibo prepositibo bihurtu nahi duen ideolekto. Hobeto iruditzen zitzaidan horren parodia jartzea ordezko testu gisa. Beste kasu batzuetan ere, *Zapo-latina* izenekoan esaterako, itzuli beharrik ez dago. Hori bera beste modu



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

**HELBURUA**

«Queneau surrealismotik zetorren, eta helburu goitiarrik gabeko literatura egin zuen»

**LITERATURA**

«Literaturaren aukera guztiak non egon zitezkeen bilatzen eta horietan murgiltzen ibili zen»

**ZALETASUNA**

«Liburu hau literaturarekiko zaletasuna pizteko balio dezakeela iruditzen zait»

batez adieraz liteke. Bilatu behar dira horren ordezkoak, konpentsazioak edo.

**Birsortzetik zerbait izan du, beraz, liburu honek.**

Horrelako testu batekin, itzultzaileak jakin behar du alde aurretik ez dela testu normal bat, eta handik harantzxeago joan beharko duela. Hori egin dut: ia ezinezkoa denean, ba ordezkoak bilatu. **Jatorrizko testua hizkuntza koska bat gehiago estutzeko ahalegina ere bada. Itzulpena zer izan da zuretzat, erronka, kirola?**

Aldez aurretik banekien puska batzuekin oso gustura ibiliko nintzela, eta beste batzuekin, esango nuela, «ez duk hori, hori baino gehixeago duk originala, ez duk iristen bere mailara». Erronka? Bai, dibertsioa ere izan daiteke, handia, hori itzultzea, eta udako arratsalde

bero batzuk horretan pasatzeko aukera polita. Lanak ez du nahi bezain azkar egin, ordea. Egon behar izan du geldi, eta gauza asko bertsozkoak direnak, sonetoak, odak zailak dira hor dagoen eduki guztia emateko. Soneto bera gaur egungo frantses hiztun bati emanda, nekez ulertuko dituelako horko zati batzuk.

**Hori izan da arazo handiena?**

Sonetoak baditu zailtasun dezente, baina, seguru aski, testuan badira zailagoak. Esaterako, izen propioekin egindako testu bat, frantsesez oso esanahi zehatza dutenak. Horren edukia ezin da itzuli. Pareko testu bat bilatu behar izan dut, eta guretzat adierazkorrak diren izenak jarri. Baina beste kasu batzuetan ezinezkoa da. Sonetoa bera, hain neurri eta testu itxietan edo lege hertsiz batzuk dituen, han dagoen

eduki guztia eman ahal izatea zaila da.

**Raymond Queneauk zertarako egin zuen testua, zure ustez? Jolas bezala? Berak aipatzen duen literatura potentzial hori lantzeko?**

Oso zaila da hori jakitea. Berak esaten du ideia hori etorri zitzaioela musika kontzertu batean, aldaerak entzuten ari zela. Arloak nahasteko joera bazuen, eta oso pertsona jakintsua zen oso muturreko arlo zenbaitetan. Helburua? Ariketa horietako batzuek izango dute helburu jakinen bat, baina nire susmoa da surrealismoaren barrenean ibili eta gero, hango oinarrietatik buelta zetorrenean, ba esan zuen, «orain, helburu goitiarrik gabeko literatura batek ere merezi du». Nik uste dut hor egon daitekeela interpretazio bat. Esaterako, *Translazioa* ariketan begi-bis-

takoa da efektu surrealista lortzen duela haien metodoen guztiz kontrakoa erabiliz. Hau da, surrealismoak mekanismo automatikoak eta subkontzientek bultzatzen ditu, eta Queneauk justu efektu berdina lortzen du, hiztegi batean s+ 7 formula erabilita.

**Eta emaitza absurdua da, berdin-berdin.**

Baina alderantzizko metodoa erabilita. Hala ere, bera ez zen inongo dogmatismotan ibiltzen. Berak esaten zuen literaturan ariketako metodo bat zela. Batzuetan emaitza onak ematen ditu, eta beste batzuetan ez du ezertarako balio. Literaturaren potentzialitateak non egon zitezkeen bilatzen eta murgiltzen ibiltzen zen.

**Gozamen hutserako liburu bada, baina erabilera pedagogikoa badu, ezta?**

Erabilera asko izan ditzake. Literatur tallerretan ari den jendearentzat, kasu. Batek esan zidan lehengoan gaztelaniazko testua erabiltzen zuela orain arte, nahiz eta euskaraz aritu. Irakaskuntzan, literaturarekiko zaletasuna pizteko ere balio dezakeela iruditzen zait. Hori lantzeko modu bat izan daiteke. **Itzuli duzun libururik zailena izan da?**

Puska batzuk zailenak izan dira, baina beste batzuk, esaterako *Deabruaren hiztegia* horretan, oso zailak bazeuden. Hark ere arazo berberak zituen, eta zati askoz luzeagoak eta handiagoak, hitz neurtuz emanak. Liburuaren %30 halakoa zen. Beraz, edo erabakitzen duzu edukia itzuli eta hitz neurtuz eman, edo horiek denak kendu, besterik gabe. Nola ez zen altxatuko kexatzeko... Liburu bakoitzak baditu bere zailtasunak.

**Gustura azken emaitzarekin?**

Zergatik ukatuko dut nik hori. Testu bakoitzarekin ahaliak eta lan txukunena egiten saiatu naiz, eta niretzat behintzat onargarria da emaitza. Horrek ez du esan nahi testu puska asko hobetu ezin daitezkeenik.

**iragarki laburrak ▶**
**LANPOSTUAK**

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak: Eusko Jaurlaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782  
**Haurtzaindegi publikoak.** zaintzaileak, hezitzaileak... behar dituzte

haurtzaindegi publikoek. 943 313782.  
**Peoiak.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782  
**Gidariak.** Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak.

Kontratu mugagabeak. 943 313782.  
**Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak.** Postu libreak Eusko Jaurlaritzan. 943 313782.  
**Suhiltzaileak,** Ertzaintza, polizia. 2006ean lanpostu berriak. Informazioa:

943 313782.  
**Haur eskolak.** Haur zaintzaileak eta haur hezitzaileak behar dira. 943 313782  
**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara, Soralue,

Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Lanaldia asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.  
**Langileak.** Obratako langileak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak behar dira udaletan. 943 313782.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Anoeta.** Basagain ehiza elkarteak antolatuta, herriko Ehiza Txiki Txapelketa txakurrarekin. Bazkideentzat, 09:00etatik 13:00etara.

**Tolosa.** Info 7 irratia proiektua aurkeztuko du Azti-begia elkarteak Kultur Etxean, asteazkenean, hilaren 8an, 20:00etan.  
**Tolosa.** Udalak Udaltzaingoa trafikolaguntzaileak behar ditu Inauterietarako. Tolosan erroldatua izatea eta ikastaroak egin izana baloratuko da. Izen-ematea, udaldebako informazio bulegoan.

**ERAKUSKETAK**

**Ibarra.** Ibaratik misio taldeak antolatuta, *Calcuta, begirada zabalik* erakusketa, hilaren 15a arte Kultur Etxean.

**ZINE-KLUBA**

**Tolosa.** *Una vida por delante* filma emango dute Bonberenean, 19:00etan.  
**Herria.** Testua.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.  
Leitza. Jimeno, A. Elbarren, 52. 112.

**Bihar**  
Tolosa. Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 38 49.  
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)**  
**Gaur**  
11:00-13:00. *Hitzak hegan* (errepikapena).  
**Bihar**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina. Eguraldia Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...  
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
21:00-22:00. *Argizirin Aitaldia*. Xoroxin Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

**Goiko Irratia (107. FM)**  
**Gaur**  
13:00. *Kornerra* magazina. kornerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Atzo, haurrak protagonista

**TOLOSA ▶** Giro ederrean igaro zuten atzoko eguna San Blas auzoan, hotzaren pean, baina gozo, gozoren artean; gaur amaituko dituzte jaiek



Koskol apustuan aritu ziren lehenengoz neskatiko eta mutikoak, hotzari aurre eginez. N. URBIZU

**NEREA URBIZU**

**S**an Blas jaiek hartu dute San Blas auzoa asteburuan. Festa ostegunean hasi bazen ere, ostiralean hasi ziren plazatxoan postuak jartzeko, erroskila goxoekin eta aldamenean edatekoak jarriz, eta ordutik askotariko ekitaldiak izan dituzte.

Atzokoan esaterako, goizean zehar etxeko gaztetxoak izan ziren protagonista; izan ere,



Txikienean ere parte hartu ahal izan zuten jolasetan. N. URBIZU

umeentzako jolasak antolatu zituzten, eta 20 haur inguru bildu ziren plazan, guraso eta helduen begiradapean. Koskol apustua egin zuten lehenik, eta ondoren zaku lasterketan aritu ziren, gero aukeri-dantzan jolaseteko. Amaieran, parte-hartzaileen artean jostailutxoak banatu zituzten urtero joaten diren hiru antolatzaile boluntarioek. Jostailuez gain, globoak eta goxokiak ere bota zituzten umeen artean. Bitartean, noski, plaza-ko postuetan erroskilak zeuden salgai, eta edatekoak eta mokadutxoak jateko aukera ere bai. Arratsaldean, berriz, probintziako guztiei zuzenduriko Toka Txapelketa izan zuten, eta iluntzean eta gau partean disko festak alaitu zuen giroa.

Emendek Arraun Kirol Elkarteak antolatutako jaiek gaur izango dute azken eguna. 09:00etan Konpenezin txarangarekin diana izango da, eta 11:00etan meza, herriko hildakoen alde. Ondoren, dantzarien emanaldia eta aizkolarien saioa izango dira. 13:00etan eta 18:00etan bertsoak entzuteko parada izango da, eta 18:30ean, trikiritza emanaldia, Etxabe Anaiekin.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Adur Murua (Alegia).  
11 urte. Aupa Murua!!  
Eta zorionak hire urtebetzean.



**URTE ASKOAN**  
Soiarte Goñi (Senpere).  
Bihar 12 urte.  
Zorionak etbekeon partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tartea

Urtebetetzeak,  
urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri:

**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaldebako bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia  
bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!